

TOKIKOM karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2011ko azaroaren 11 306. zenbakia. 23. urtea

Sukaldaritzaren eskolatik

Basque Culinary Center-eko zuzendaria da
Joxe Mari Aizega. Lapiko eta su
artean gordetako agerian jarri dugu

05

Orioko kontuak
Badatoz sanmartinak

10

Aiako berri
Gabino Alustizari
omenaldia

22

Ikasleak idazle
Xabier Makazaga

25

Herritarra
Rakel Nacenta

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK ■
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK ■
FATXADEN ERABERRITZEAK ■
ISOBAILUEN PROIEKTUAK ■
GREMIO KOORDINAKUNTZA ■
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... ■

ITURRIBIDE 8, S. BULEDDA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722



AKOBE ACTIVA
JUAN ALBIZU

Etzetresna elektrikoak
sukaideko altzariak

Abeslari, 8 • 20810 ORIO
Tel/Fax: 943 83 12 49 • albizu@activohogar.com

Azkue

Tf: 943 13 04 38

ALTXERRI
Karta enberritua

Asteburuan, eguerdi eta gauetan,
mama bereziak

943 83 07 62

Allianz 

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Itzi Ondo, 10 berru oina
zarautez: 943 13 47 80
fax: 943 83 57 82
e-mail: zaldua.aseguru@allianz.es

eduzitologia
ANTILLA
jabetasun

Abeslari Kalea, 2 • TEL: 943 13 04 38

Kinkladenda- Ume arropa

argine

www.laonel.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU
jaletxea

Andatza auzoa - AIA
Tel. 943 83 45 21

Automóviles ZARAUTZ

OTROEN ZERBITZU GONDALARIA

TRAKO • BOTOAK
ETA BOTOAK
SUGI

ZARAUTZ, 943 13 33 50

estilo berria

Ogitarokoak
Plater konbinatuak
Etxeko janaria
Pintxoak

943 13 13 12
Aiz

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Alustiza Autobusak
Autobus eta Gidatutako S.T.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80 • Mugikorra: 656 78 30 01 • 656 78 29 99

AHOKULARITZA
Fisioterapia, inbuzio, kardiologia

Eugenio Garmendia
ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 • 943 83 49 17

ARRIATA modas

Eusko Gudanak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Gabon
TABERNA

plater konbinatuak
pintxoak

Tfmoa: 943 83 06 09

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitaroko mundialak

MESTIAZ KALEA, 1 TEL: 943 83 16 57

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

Askotan pentsatu duzu: noiz hilko ote da

1

Bertsoa berez sinplea dugu, ez da inongo miraria, baina zenbaitek belarritarra egin digu oparia. Maisu-maistrak izan ditugu haietatik bat handia. Noiz hilko ote da? Noiz hilko ote da? Galdera da nabaria Leitzan jaio ta oriotartu genuen bertsolaria.

2

Asko entzun arren ez dugulako entzun nahi genuen guztirik, eta oraindik geratzen zaio guretzat argi izpirik. Hori dela ta itxaropenak zizta txiki bat egin dit. Nahiz eta askok gaur ez zeukaten hain esperantza handirik, beti hiltzeko, beti hiltzeko eta oraindik bizirik.

3

Hitza jolasa bihurtu zuen ta jolasa ia arte. Horrelakoek bihotzeraino poztasun franko dakarte. Seguran dago zahar etxe baten ez dago horren aparte. Bisitan joan nahi badegu ere, zain dago beti Lasarte. Berekin jolas egin dezagun berak *bale* esan arte.

306

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkartea

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldea

Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze
eta Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Eneritz Albizu,
Jon Beldarrain,
eta Lasa farmazia

Laguntzaileak

Iñaki Iturain
eta Garbiñe Manterola

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

Banatzzaileak

Cristina Burlacu
eta Iban Recio (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



Gipuzkoako txapelketan, Eibarko final zortzirenean, kartzelako ariketan, Gurrutxagak kantatutako bertsoak. KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

| | |
|----------------|----------|
| Modulu bat | 12,00 € |
| Bi modulu | 24,00 € |
| Hiru modulu | 36,00 € |
| Lau modulu | 48,00 € |
| Sei modulu | 72,00 € |
| Zortzi modulu | 96,00 € |
| Orrialde erdia | 120,00 € |
| Orrialde osoa | 204,00 € |

Iragarkia behin jarrita

| | |
|----------------|----------|
| Modulu bat | 16,00 € |
| Bi modulu | 31,00 € |
| Hiru modulu | 47,00 € |
| Lau modulu | 64,00 € |
| Sei modulu | 95,00 € |
| Zortzi modulu | 127,00 € |
| Orrialde erdia | 174,00 € |
| Orrialde osoa | 306,00 € |

Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin
(695 78 07 20) edo
publizitatea@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Alde hemendik!

Gutun honen bidez, Guardia Zibilak Orioko lurretan duen presentzia eta eragiten ari den presioa salatu nahi dugu. Hondartza bidean, Kukuarriko ibilbide-etan edo Igeldora garamatzen errepidean, badira egun batzuk oinezkoak, txirrindulariak nahiz autoak geldiarazi eta identifikatzen ari direla. Armak eskutan dituztela pertsonen askatasuna zapaltzen dute. Bakeaz mintzo garen garai honetan, ez dirudi batzuk errepresioarekin amaitzeko prest daudenik. Bitartean jendeari dei egiten diogu horrelako jazarpen egoerak salatzeke.

Alde hemendik, utzi bakean! ■ **Orioko Amnistiaren Aldeko Mugimendua.**

Omenaldia Aiako udaletxean

Batzuek dakizuen bezala, azaroaren 29an Aiako udaletxean omenaldia egin zitzaion errepublika garaian Aiako alkate zenari eta beste aiar batzuei. Omenaldi horretara Udaleko ordezkari garen lau pertsona ez ginen azaldu. Ezinbesteko ikusten dugu argitzea zergatik ez ginen joan altxamenduaren ondorio latzak sufritu dituzuen herritarren eta senitartekoen artera. Lehenbizi, esan Gabino Alustiza bezala errepublika onartzeagatik edo defendatze hutsagatik fusilatu, bortxatu, kartzelatu... zituzten pertsona (izen-abizenak dituztenak) guztien aldeko omenaldia egitearen aldekoak gara. Zergatik ez ginen azaldu? Larunbatean zen omenaldia eta ostegun-ostirala bitartean pasa zigun alkateak pleno aretoan jarriko zen plakaren idatzia. Udaloaren izenean irakurriko zen adierazpena ere berdin... Guk plakan jartzen zuena irakurritakoan, ikusi genuen ez zuela aipatzen nork edo ze ideietako pertsonen fusilatu zuten/zituzten. Oso datu gutxi zeudela iruditu zitzaigun eta horrelako omenaldi bat egiteko gehiago sakondu eta informazio gehiagorekin egin behar dela. Udalak informazioa, datuak, argazkiak... orain eskatu dizkie herritarrei. Ez al zen hobe lan hori aurretik eta hobeto egitea? Familia asko ditugu senideren bat fusilatu, bortxatu edota oraindik beren gorpurik agertu gabe daudenak. Omentzerik ez al dute merezi?

Bestetik, adierazpena bera nahiko azalekoa iruditu zitzaigun, ez zen errepublikarren ideia eta balioen aipamenik egiten, ezta altxatu ziren faxistenik ere. Batzuek ideiak defendatzeko eta besteak inposatzeko erabilitako moduak baloratzerakoan, faxistek sistematikoki

fusilamendua erabili zutela aipatu gabe... Garbi utzi behar da errepublikaren alde jardun zirenek eta armaz altxa zirenek trataera ezberdina izan behar dutela, aurretik aipatutako ezberdintasun garrantzitsuengatik hain zuzen ere. Guzti horretan Udalak duen erantzukizun politiko zuzenagatik argi eta garbi adierazi behar du bere jarrera eta posizioamendua, nahiz eta jakin herrian bi bandoetako jendea zegoela.

Udala ordezkari guztiek osatzen dugula jakinda eta bezperara arte gurekin/zuekin kontaktu ez dutela kontuan hartuta bi-hiru aukera planteatu genituen gure artean *omenaldiari* begira.

1.- Alkatearekin azken momentuan kontsentsu moduko batera azkar eta seguraski nahikoa landu-sakondu gabea iritsi eta omenaldira azaltzea. Plaka zegoen bezala, udal ordezkari gisa lanak behar bezala egin behar ez direla onartzea zekarren horrek. Gure erresponzabilitatea da hori onartzea edo ez.

2.- Omenaldira joan eta bertan azaltzea gertatua. Aukera hori baztertu egin genuen; ez zitzaigun bidezko iruditu, omenaldi bat ez delako momentua udal ordezkariak arazoak plazaratzeko eta biktimekiko, senitartekoengatik –bertaratuengatik– errespetuagatik ere bai.

3.- Omenaldira ez joatea, baina, gutxienez gure argumentuak geroago plazaratzea –jakinda biktimen senitarteko eta bertaratuek gu bertan egotea nahi izango luketela–.

Hirugarrena iruditu zitzaigun txarretatik gutxiena zuena.

Badugu oroimen historikoa berreskuratzeke lana egiteke, udaletxetik hasita. Oroimen historikoa berreskuratzea eta herritar guztiek zer gertatu zen jakitea eta baloratzea litzateke, gure ustez, biktimei egin lekieteen omenaldirik duinena, besteak beste.

Geure egiten dugu errepublikaren alde egote *hutsagatik* –ez baita gutxi–, bortxa jasan zutenek eta beren senideek jasandako samina. Zuekin gaude. ■ **Aritz Arruti, Axier Egaña, Amaia Gurutzeta eta Mikel Zulaika.** Aiako Bilduko independenteak

Auzolan topaketak, zaharrak berri Usurbilen

Behin batean, aspaldi-aspaldi, mendiek eta animaliek izenik ez zuten sasoiaren, ba omen ziren Urola ibaiaren inguruan bi mendi nagusi eta biek ere bazter haietako nagusitasuna aldarrikatzen zuten bezala, ospetsua omen zen bien arteko ezinikusia. Honelaxe galdetu omen zion mendi batek besteari egun batean: Hi zer haiz? Eta besteak berriz erantzun: Hi bezala-

ko zazpi! Handik aurrera, bata Izarraitz eta bestea Izazpi izan omen ziren.

Eta egiak egi, ederrak eta bereziak dira elezaharrak; baina, aldi berean, gogor eta zakarrak ere badira. Sinesmen zaharrek gure mundua ulertzeko eta antolatzeko bidea ematen digute, eta kontaktuzun bakoitzak bere esanahia dauka. Eta, agian, arestiko kontakizun txikiarena erronkei aurre egitearena izango da. Zezen beltzari aurrez aurre hartu eta adarretatik eusteko premiarena. Bai norbanako gisa, zein euskaldun gisa ere, ez badiogu zezen beltz oldarkorri adarretatik eusten, gaizki behar gara izan. Gaur egun pairatzen dugun sistema kapitalista, faxista, liberal berri eta globalizatzaileak hainbat tresna erabiltzen ditu gu denok erdi akabatuta lagartzeko. Baina, zorionez hainbat herritarrek, enbidoari hordagoarekin erantzun diote. Usurbilgo herrian antolatutako I. Auzolan Topaketetan, gaur egungo gizarteari buruz hitz egin zen eta, atalez atal, gure gizarteko hainbat esparru aztertu: argindarra, euskalgintza, deshazkundera, elikadura, osasuna, kultura, hezkuntza...

Hasiera besterik izan ez bazen ere, eman dira aurreneko pausuak eta jarririk dira hurrengo bilera egunak. Azaroaren 12an Iruñean bilduko gara, eta hemendik deia egiten dizuegu parte hartzera.

Abian da, beraz, Auzolan Ekimena eta gizarte berdinzaleagoa lortu asmoz auzolana eta batzarra bultzatu nahi ditu, herriz herri. Tokian tokiko burujabetasuna aldarrikatzen du eta hori lortzeko tresnak auzolana eta batzar edo bilerak izango dira.

Benetan beldur handia ematen du zezen beltzak, denok ere lepotik harrapatzen baikaitu, baina talde-lanean menderatu dezakegu. Horrela egiten zuten lana gure antzinakoek eta geuk ere badugu zer ikasia haiengandik. Jasone Mitxeloren etxalartarrak idatzitako liburu bikainean, hainbat argibide lor daiteke: Auzolanaren kultura. Iraganaren ondarea, orainaren lanabesa, etorkizunaren giltza liburuia izango da Auzolan Ekimena herriz herri eta auzoz auzo aurkezteko baliabidea eta dagoeneko salgai dago liburutegietan. Bestalde, internet zaleentzat ere hortxe dago aukera www.azolan.info webgunean.

Abian da aro berria eta ilunpetako tunel umeletik ateratzen hasiak garenez, argitasuna non-nahi antzematen da. Ez da makala aurrean daukagun mendi gailurra, baina handiagoak igo izan ditugu euskaldunok. ■ **Gurutz Garmendia.** Auzolan institutua



Oilasko biltzaileen lana izaten da sanmartinetako protagonista. SANMARTINETAKO JAI BATZORDEA

Aurtengo sanmartin jaiak asteburu bakarrean izango dira

Azaroaren 10ean hasi eta 13an bukatuko dira aurtengo sanmartinak. Urtero bezala, euskal giroko egitarau oparoa osatu dute festa batzordekoek, bertsoak, trikitia eta euskal kirolak oinarri hartuta.

Urtero bezala, hutsik egin gabe, sanmartin festetako jai batzordeak bailarako festak antolatu ditu. Egitarau oparoa osatu dute berriz ere eta aurtengoan Euskal Herriko jai-giro tradizionala izango dute ardatz: euskal kirolak, trikitia eta bertsolariak.

Lehen eguna azaroaren 10a izango den arren, festa giroa San Martin egunean bertan hasiko da. Goizean meza, hamaiketako eta toka eta sagar-biltzeko jokoan aritu eta gero, arratsaldeko 17:30ean, sanmartinetako lagun-arteke estropadak jokatu dira. Gauean, eguna ondo bukatzeko, mus txapelketa jokatuko da.

Azaroaren 12an, larunbatean, erromeria-afaria izango da protagonista oilasko-biltzearekin batera. *Bide batez* taldeak girotuko du afaria. Hurrengo egunean *Heldu!* herri kirol taldeak erakustaldia egin eta gero, bertso-bazkaria izango da Amuriza eta Colinarekin, Eneritz Bengoetxea eta Edurne Errandonea trikitilariak lagunduta. *Agiñako rebantxa* deitu duten aizkora apustuarekin bukatuko dira sanmartinak.

EGITARAUA

Azaroak 10, osteguna
Gauean Mutil-ardoko afaria

Azaroak 11, ostirala
10:30ean Meza nagusia San Martinen
Ondoren Hamaiketako bertsolariekin Olidenen
Jarraian Toka eta sagar-biltzea
17:30ean Estropadak: Sanmartinetako 10. ikurrina
22:30ean Mus txapelketa Olidenen

Azaroak 12, Larunbata
6:00etan Oilasko-biltzea
17:00etan Ume jolasak Txurumuskirekin
Gero Txokolate-jana
21:00etan Erromeria-afaria
Goizaldean Baratzuri-zopa

Azaroak 13, igandea
12:00etan Herri kirolak
14:00etan Bertso-bazkaria
18:00etan Aizkolariak

Festak zure sentitzeko

SANMARTINETAKO
JAI BATZORDEA

Bat-batean, ezagutzen duzun pertsonarik ateoena mezetan ikusten duzu, festetako programan goizeko hamar eta erditan *meza nagusia* jartzen duelako; aurreko asteburuan lagun batekin mozkortu eta bertsoan hasi zinenean *gaur'ebai?* esanez errietan jardun zen hura bertso eske hasten zaizu; Aginagako festetan *bakailaoa* dantzatzuz ibili zen eta zuk gorputzik mugitzen ez zenuelako errukia sentitu zuen hark inbidiaz begiratzen dizu fandangoa eta arin-arina dantzatzen dituzunean.

Horra, festak zure sentitzeko hiru baldintzak: joan, ondokoak egiten duenarekin gozatu eta zuk ere egingo bazenu hobeto pasako zenukeela pentsatu.

Festa egin bakarriz ez, bizi ere egin behar baita.

Elkartasun tonbola egiteko eta jostailuak jasotzeko material bila

Herrio natur taldeak eta Orioko Herri Ikastolako ikasleek ekimen bana egingo dute Gabonak inguruan, behar gehien duten haurrentzat dirua eta bestelako materiala lortzeko.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Gabonak gertu ditugula-eta, behartsuentzat baliabideak lortzeko ekintzak antolatzen ari dira zenbait talde.

Orioko Herri Ikastolako DBH 4ko ikasleek seigarren aldiz antolatuko dute Elkartasun Tonbola, herritarrek egin izan dioten harrera ona ikusita.

Tonbolan irabazten diren sariak merkatariek beren borondatez emandakoak

izaten dira eta ikasleak dendaz denda jotzen dira horiek jasotzera. Horrenbestez, Ikastolako ikasleek aurten ere laguntza eskatu nahi diete komertziantei, tonbola antolatzeko.

Bertako irabazien erdia ikasketa bidaiarako erabiltzen dute eta beste erdia Ruandako eskola batera bidaltzen dute, han ezinbestekoa duten materiala erosi ahal izan dezaten.

Jostailu bilketa

Herrio natur taldeak beste ekimen bat antolatzen du garai bertsuan: jostailu bilketa. Alde batetik, kontsumo arduratsua bultzatu nahi dute natur taldekoek eta, bestetik, besteek erabiltzen ez dituzten eta egoera onean dauden jostailuak ematea behar gehien dutenei.

Horretarako, azaroaren 25ean, Zaraguetan 16:00etatik 17:00etara, Ikastolan 16:30etik 17:30era eta Kosta Tailerrean 18:00etatik 20:00etara izango dira jostailuak biltzen. Abenduaren 15ean Kosta Tailerrean izango dira berriz eta, abenduaren 17an, egun guztian plazan.



Abenduaren 24ko eguerdian egiten dute Elkartasun Tonbola DBH 4ko ikasleek Herriko Plazan. ORIOKO HERRI IKASTOLA

LABUR

Bertsolaritza

Finalerako txartelak salgai

Gipuzkoako txapelaren lehian, finalerako txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko. Bazkideek sarrerak internet bidez atera beharko dituzte, baina gainerakoek sarreraren bat nahi izanez gero, txapelketan oriotarrak geratzen ez den arren, herritik mugitu gabe KARKARAREN bulegoan dituzte eskuragarri. Bakoitzak 18 euro baliu du eta 100 sarrera ditugu salgai.

Musika

Benito Lertxundiren kontzertua

Orain dela 2 urte egin zuen bezala, Orioko Herri Ikastolak Benito Lertxundiren kontzertua antolatu du. Kontzertua azaroaren 25ean, ostirala, gaueko 22:30ean izango da Karela kiroldegian. Sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko Karela Kiroldegian, Lore eta Uranga burdindegietan, turismo bulegoan, Ikastolan bertan eta www.barrabarra.eu orrialdean eta kontzertuaren egunera arte egongo dira salgai 18 eurotan. Kontzertua ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko egingo diren ekin-tzen barruan aurrenekoa izango da.

Ikus-entzunekoa

Danbolin, lipdub lehiaketan

Orioko Danbolin musika eskola, EITBko Gaztea Irratiak antolatu duen lipdub lehiaketan ari da parte hartzen. Urriaren 29an grabatu zuten lipduba eta azaroaren 25ean bukatuko da lehiaketa, betiere finaleraino iristen badira. Ander Errastik zuzendutako lana sarean dago ikusteko moduan, eta bozketa bidez aukeratzen dira aurrera egingo dutenak. Momentuz, lehen hamarretatik urrun daudenez, www.eitb.com/eu/gaztea/lipdub/ orrialdean sartuta, herritarrei bozkatzeko eskatu diete azaroaren 13a baino lehen.



Angel del Hoyo eta Bixente Lasa zinegotziak ez ziren egon azken udalbatzarrean. KARKARA

Ordenantza fiskalak onartuta geratu ziren udalbatzarrean

Bederatzi ziren aztertzekeo gaiak; baina, azken unean, hamargarren bat ere gehitu zitzaion. Gai guztiak onartuta geratu ziren, gehiengo absolutuz gehienak.

Urriaren 27an egin zen Orioko Udaleko udalbatzarra. Aurrekoetan baino herri-tar gutxiago izan zen plenoa zuzenean jarraitzen, eta zinegotzien artean EAJko Angel del Hoyo eta Bilduko Bixente Lasa ere ez ziren bertan izan. Indarrak orekatura geratu ziren, hortaz, bozketak egiteko garaian.

Bederatzi puntuk osatzen zuten gai zerrenda, baina, alkateak hala eskatuta, hamargarren bat sartzeko eskaera egin zuen bilkuraren hasieran, eta aho batez onartu zuten mahaira eserita zeuden zinegotziek.

Lehen gaian, Urola Kostako Udal Elkarte Zuzendaritza Batzordeko ordezkari kideak izendatu zituzten, Orioko Udalaren ordezkari gisa joango direnak aurrerantzean. Bilduren izenean Amaia Dorronsoro joango da Beñat Solaberrieta ordez, eta EAJren izenean Jon Redondo izango da Noemi Ostolazaren partez.

Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren 9. arti-

kulua aldatzeko lehen onarpena ematea zen bigarren gaia. EAJ eta Orainen baiezkoarekin onartu zen. Bilduk erroldatuta eman beharreko urte kopurua murriztea nahi zuen, eta ezeke botoa eman zuen horregatik.

Hirugarren gaian, Udalak sustatutako hondartzako 4 etxebizitza tasatu eta Kale Nagusian ekimen pribatuz sustatutako beste 25 etxebizitza adjudikatzeko prozesuaren oinarriak onartu ziren, Bildu eta EAJren aldeko botoekin eta Orainen abstentzioarekin.

Lehen onarpena jaso zuten kreditua aldatzeko espedienteak, kreditua transferitzeko modalitatean, eta elektrizitatea sortzeko eguzki plakak ezartzeko arauak finkatzen dituen udal ordenantzak. Onartu egin ziren, baita ere, Orioko bi kale berriren izenak -Palota eta Munto kaleak-, 2012rako taxiaren tarifa urbanoak eta Orioko Udalaren barne-araudia, nahiz eta EAJk gai hori aztertzekeo denbora gutxiegi izan zutela adierazi zuen.

Ordenantza fiskalak

Datorren urterako ordenantza fiskalak ere onartu ziren Bildu eta Orainen botoei esker. EAJk ezezkoa eman zion gai horri, beren ustez, tasak izoztu beharra baitago krisiaren unerik gordinen. Bilduk, horri erantzuteko esan zuen, KPIa baino ez dutela igo eta behar gehien dutenentzat aurrerantzean ere hobariak izango direla azpimarratu zuen.

Orokorrean KPIak %3ko igoera izan du aurrean eta, beraz, berdin egingo dute gora tasek ere. Hutsik dauden etxebizitzetxe zerga igotzeko nahia azaldu zuten Bilduk eta Orainek, baina etxebizitza hutsa zein den zehazten duen arautegirik ez dagoenez, ezin izan dute halakorik egin. Ibilgailuen tasak indarraren arabera igoko dira: 14 zaldi arteko %3 igoko zaie eta gainontzeko %5. Udako hondartzarako txartela 38 eurotan salduko zaie aiarrei edo ibilgailuaren zerga kanpoan ordaintzen duten oriotarrei.

Tabernariei %3 igoko diete zerga, baina terrazako mahai eta aulkiak taberna barruan jasotzen ez dituztenei %5. Squash eta tenis pistak merkatzea erabaki dute, 4 euro tenis ordua eta 8 squashekoa. Txu-txu trenean publizitate moduluak 85 euro balioko du eta joan-etorriko bidai txartelak 60 zentimo. Musika eskola %5+KPI igo ordez, %5 igoko da 2012an eta karga-tasa %9tik %10era pasako da.

Berdinketa izan zen Orioko FT eta Getariako Ketaren arteko derbian

Azaroaren 5ean jokatu zen partida, eguerdian, eta haizea eta euria izan ziren partiduko protagonistak. Gol asko izan ziren, eta azken unera arte ez zuen partida berdindu Oriok.



Erreionalen taldea entrenamendu bateko hizketaldian. KARKARA

Partida xelebrea izan zen, *Makatza* Orioko Futbol Taldeko presidentearen ustez. Partida hasi eta segituan jarri ziren aurretik oriotarrak, ia segidan sartu zituzten bigoleiesker, eta 2-0 zihoazen aurretik 25. minutuan. Baina lehen zatia bukatu aurretik, oriotarrek egindako bi huts medio, 2-2koa jarri zuten markagailuan Getariako Ketako mutilek.

Eguraldi kaxkarra izan zen partiduko protagonista, eta horrek eraginda-edo, ezohiko egoera asko eman ziren partiduan. Epaileak 16 txartel erakutsi zituen eta, horren ondorioz, Oriok 3 jokalarigutxiagorekin bukatu zuen neurketa, guztiak ere bina txartel hori ikusi eta gero epaileak kaleratuta.

Norgehiagoka bukatzeko zela, Orioko jokalaria batek ate aurrean baloia besoarekin jo zuelako epaileak penaltia adierazi zuen Ketaren alde eta 2-3 aurretik jarri ziren getariarrak. Baina, handik gutxira, antzeko egoera batean, oriotarren aldeko penaltia eman zuen epaileak. Josu Solaberrietak ez zuen hutsik egin eta 3-3 bukatu zen neurketa.

Gauzak horrela, Orioko taldea jaitsierra postuetatik kanpora geratu da eta 5. doan Mutrikurengandik 2 puntura baino ez dago sailkapenean, 12. tokian.

Gainontzeko taldeak

Gustura dago Makazaga presidentearlortzen ari diren emaitzekin. Orioko FTko taldeek bakoitzak bere maila ematen ari dela uste du eta, batez ere, nesken joko ona azpimarratu du. *Futbolarekin disfrutatu nahi duenak, gure nesken neurketak ikusi beharko lituzke* esan du Makatzak.

LABUR

Saskibaloia

Sanikolasetako 3x3 txapelketa

Azken urteetan egin den moduan, sanikolasetan Orioko Herri Ikastolak, Zarauzko Saskibaloi Taldearen eta Orioko Saskibaloi Taldearen laguntzaz, 3x3 txapelketa antolatuko du. Abenduaren 8an jokatu da txapelketa eta goizez 14 urte artekoak arituko dira, eta arratsaldean 14 urtetik gorakoak. Izena ematea Karela kiroldegian eta www.zast.es orrialdean egin daiteke.

Idi-dema Kintope

Aurreko asteburuan, azaroaren 4an eta 5ean hasi ziren jokatzeko Aiako 10. kintopeko idi-probak. Dagoeneko 6 idi pare aritu dira deman, Soartereneak -Elgoibar-, Irarreta anaienak -Errenteria-, Andraga jatetxekoanek -Lemoiz-, Telleriarenak -Lasarte-, Patxi Irarretarenak -Errenteria- eta Basaberenak -Lasarte-. Momentuz onenak Irarreta anaiak izan dira, 52 plaza, 7 zinta eta 1,35 metroekin. Azaroaren 11n eta 12an arituko dira geratzen diren 6 idi pareak, gaueko 22:00etan, Aiako probalekuan.

Atletismoa

Oriotarrak txukun Lasarten

Urriaren 30ean jokatu zen Lasarte-Oriako 16. krosa. Bertan, oriotar asko izan ziren lasterka Behobia-Donostiarako prestatzen. Saio txukunak egin zituzten oriotarrek eta onena Iñaki Tapia izan zen 37:06ko denborarekin. Igande honetan, azaroaren 13an, Behobia-Donostia lasterketa izango da eta bada lekurik oraindik ere autobusean joan nahi duenarentzat. Izena eman nahi duenak Juan Angel Garmendiarekin jarri behar du kontaktuan edota Karela kiroldegiko harreraren eman izena.

“Oraindik elkarrekin gehiago hitz egin behar dugu jokatzekoan”

Naroa Beldarrain eta Arrate Indo

Pala jokalariak

Urtebete baino gutxiagoan bi elkarriketa egitea ez da ohikoa. Baina bi neska hauek pilotaren alorrean izan duten bilakaerak hainbeste merezi du, 2. mailako Gipuzkoako pala txapeldunak baitira Arrate eta Naroa.



GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

IKER GURRUTXAGA

Urriaren 23an irabazi zuten txapela Beldarrainek eta Indok. Duela ia urtebete egindako elkarriketan, joko hobetzea zutela helburu zioten. Emaitzak, behintzat, hobetu dituzte.

Emaitzen bilakaera positiboa benetan azkarra izan da.

Naroa Beldarrain: Iaz Hernani eta Intxurre izan genituen aurkari gogorrenak eta ezin irabazita ibili ginen.

Arrate Indo: Bai, aurten erosoago ibili gara, gure jokoak hobera egin baitu.

Baina zer hobetua izango duzue, ezta?

A.I.: Bai, jakina. Oraindik elkarren artean gehiago hitz egin beharra daukagu, askotan komunikazioa ez izateak eragiten baitu hutsak egitea palan jokatzeko ari zarenean.

Finaleraino partidarik galdu gabe, eta han ere txapelarekin etxera.

N.B.: Ilusio handiz jokatu genuen finala, eta txapela irabazteak poza areagotu egin du. Urduri hasi ginen arren, partidaren erdian gure joko egiten hasi ginen eta txapela irabazi genuen gisa horretan.

Garaipena nola ospatu zenuten?

A.I.: Ez genuen ezer berezirik egin. Gurretako ilusio handiko momentua izanagatik, ez genuen ospakizunik egin. Nahikoa lan izan nuen etxera bizikletaz iristen txapela eta kopa gainean. Eskuan eraman behar eta ezin asmatu nola!

Ikusle asko izan al dituzue partidetan?

N.B.: Ez, eta hala hobe. Lasaiago jokatzen dugu publiko gutxi dagoenean.

A.I.: Bai, egia da. Finalean ere ez zen jende asko etorri partida ikustera, eta erosoago aritzen gara halakoetan.

Emakumea pilotari egitasmoan hasi al zarete?

N.B.: Aurreko astean hasi ginen. Bikotekidez aldatu behar izan dut.

A.I.: Niri kiste bat atera zait eta kendu egin behar izan didate, eta orain jokatu gabe egon beharko hilabete batzuetan.

N.B.: Hernaniar batekin, Garbiñe Tejeroarekin, jokatuko dut. Emakume helduda, 55 urte-edo ditu, eta entrenatu gabe jokatuko dugu elkarrekin. Ezberdina izango da. Pena ematen dit Arraterekin jokatu ezin izatea.

Orioko emakumeei zerbait esateko?

N.B.: Etor daitezela pala probatzera. Laukotea osatzea polita litzateke, gutxienez entrenatuz izerdia botatzeko.

Fusilatu zuten Gabino Alustiza, alkate izandakoa, omendu dute

Urriaren 27an 75 urte bete ziren Francoren tropek fusilatu zutela Gabino Alustiza. Horrenbeste urte pasa eta gero, familiak eskertu du zegokion omenaldia egin izana. Udaletxean elkartu ziren senideak eta Udaleko ordezkariak.

PAT COWIE

Udalbatzar aretoa lepo zegoen urriaren 29an Gabino Alustiza omendu zutenen. Senide batzuen ahaleginari esker lortu da Udalak alkate izandakoari omenaldia egitea. Familia eta Udala, biak ordezkaturatu zeuden bertan.

Udalaren izenean

Hasieran, Igor Iturain alkateak hartu zuen hitza orain dela 75 urte pasa zena gaitzesteko: *Aiako Udalak 1936ko uztailearen 18an osatutako legezko udal korporazio errepublikarraren aurkako estatu kolpea gaitzesten du. Horren ondoren eta urte luzez, gure herrian eskubide demokratikoak zapalduak izan ziren, eta errepresioa nagusitu zen. Horrela, 1936-1937 urteetan hainbat herritar fusilatuak izan ziren inolako motiborik gabe, beren ideologia epaituz, hainbat familia eta gertukoiei urteetan isilpean eraman izan duten mina sortaraziz. Gaur gaitzetsi egiten dugu hori eta gure besarkadarik sentikorrena helarazten diegu senideei, 75 urte berandago bada ere. Udal honek aipamen berezia egin nahi dio 1936. urtean legez osatua zegoen udal korporazioko eta Aiako alkate zen Gabino Alustizari, aberztale izateagatik fusilatu zutena 1936ko urriaren 27an, Hernaniko hilerrian.*

Zegokion lekura ekarri

Ondoren, Alustizak bizi izandakoa garaiako testuinguruan jarri zuen Iñaki Iturainek ozen irakurri zuen testuan: *Ahal zela, zeudenei emozioa, zirrara, sortzeko. Eta, jakina, gizon hari, alkate hari, omen egiteko, horrenbeste urte pasatu eta gero, zegokion lekura ekartzeko.*

Seguran jaioa, baina txikitatik Aiako Palazioan bizi zen alkatearen gogoak irudikatu zituen Iturainek berak sortutako kontakizunean. Hilabete bat Ondarretako kartzelan egon ondoren, presoaren gogoeta asmatu zuen, eta ametsetako bidaia balitz bezala, Alustizaren kezkei eta pentsamenduei bizia eman

zuen: *Andrea ikusi zuen, Luisa, eta banan-banan bederatzi seme-alabak... eta berakezin lagundu. Etxekoei aguresateko ere ez zioten aukerarik eman... Alkate izendatu zutenetik, Aiako herrian egindako lanak etorri zitzaizkion burura: nekazarien kooperatiba sortzeko egindako joan-etorriak, izandako gorabeherak...*

Musika lagunduta

Iturainen irakurketa gitarrako musika-rekin tartekatu zuen Eduardo Barzanok Agustin Barrios paraguaiarraren *El último canto* eta Aita Donostiaren *Oinaz* obrekin. Giro berezia sortu zen, eta hunkitu egin ziren bertaratutako batzuk. Kontatutakoak ere zer pentsatu eman zuen; esaterako, egunero janaria eramatera kartzelara joaten zen Alustizaren alabak jaso zuen notizia aipatu zenean: *Esan zioten aita ez zegoela kartzelan, libre utzi zutela.* Baina itxaropentsu bukatu zuen Iturainek: *Gabino ez zuten guztiz hil. Haren izpiritua bizirik dago... (haren hiltzaileek) ekarri zuten gorrotaren gainetik, bake itxaropena ari zaigu zabaltzen... eta galarazi nahi izan zigiten hizkuntzan ari gara gaur, euskaraz, gizon xume haren oroimena berreskuratzen, alkate haren ohorea dagokion lekura ekartzeko.* Bukatzeko, Mikel Markezek *Egia bat esateagatik* kantatu zuen, abeslariak musikatutako Gabriel Arestiren poema bat.

Senideak

Omenaldian, Alustizaren hiru alaba izan ziren presente: Isabel, Manoli eta Milagros. Azken horrek, Milagrosek, kendu zion Udalak egindako ohorezko plakari estalkia, jendearen txaloen artean. Txundituta gelditu zirela kontatu zigun Joxe Mari Gonzalez de Txabarrik, Alustizaren bilobetako batek. Hiru alabez gain, biloba eta birbiloba askok hartu zuten parte ekitaldian, berrogeik baino gehiagok. Senideekin batera, alustizatarak Laurgaingo palazioa ekarri zituen familiako ordezkaria ere izan zen bertan: Ana Mari Lardizabal.

Ondoren, hogeita bost bat senidek bazkaldu zuten elkarrekin. Gustura zeuden egindakoarekin eta pozik, azkenean, Gabino Alustiza izandako alkatearen izena duen plaka Udalean dagoelako, egindakoaren lekuko.



KARKARA ETA ALUSTIZAREN FAMILIA

Elkano auzoan frontoia eta elkarte egingo dituzte 2013ko otsailerako

Pilotalekua 26 metro luze eta zortzi metro zabal izango da; eta sukaldea eta ohiko beste azpiegiturak izango dituen elkartean, berriz, 30 inguru lagunentzako tokia izango da.

Elkano auzoko bizilagunek azken urteotan egindako eskariari erantzunez, Udalak, agintaldi honetan, Elkanon frontoi bat egiteko asmoa duela jakinarazi du. Frontoia ez ezik, haren aldamenean elkarte bat ere egin nahi dutela adierazi du Aiako alkate Igor Iturainek. Horretarako, plan berezi bat idatzi eta onartu behar dago, eta hasierako tramitazioetan ari dira.

Urbanizazio planarekin hasi ziren ideia aztertzen eta etxebizitza plana gelditu bada ere, pilotaleku eta elkartearen egitasmoak aurrera egingo du. Alkateak aurreratu duenez, guztia martxa onean joanez gero, 2013ko otsailean amaituta egongo litzateke. Gutxi gorabehera, 26 metro luze eta 8 metro zabal izango da pilotalekua, eta elkarteak 30 inguru lagunentzako tokia edukiko du.

Auzotarrak pozik

Pilotalekua egingo dutela *ia ezin sinetsita* daude Elkanoko auzotarrak. *Txikitik amestu izan dugun zerbait da, auzoan ez baitugu inoiz jolaserako, ekitaldietarako... tokirik izan eta ilusioz beteta gaude. Elkartearena ere sarritan proposatu izan dugu bileretan, izan ere, auzokoak elkartu behar dugunetan, esaterako, festak antolatzeke, Elkanoko taberna bakarrera, jo behar izaten dugu. 2013ra arte egingo ez badute ere, irudiak ikuste hutsak poza ematen digu eta hainbeste denboran zain egonda, bertan dagoela dirudi, dio Elkanoko Josune Lazkanok.*



Estalitako frontoiaren aldamenean egongo da elkarte gastronomikoa. AIAKO UDALA

LABUR

Festa Gaztaina erre Eguna

Lardizabal guraso elkarteak antolatuta, azaroaren 13an, igandean, Gaztaina erre Eguna izango da. 17:00etan haurrentzat, *Ipuin lapurra* txotxongilo ikuskizuna egongo da Kultur Etxean eta 18:00etan, plazan, gaztaina errearen banatuko dituzte, eta freskagarriak ere izango dira. Ondoren, bizikleta eta otarra zozketatuko dira. Festa guztia musikaz alaituko dute.

Lapurretak Etxeetan eta kalean lapurrak

Hainbat lapurreta eta saiakera izan dira azken aldian Aian. Olaskoegia auzoko Txarkailu Azpikoan, aizkora batekin leihorearen markoa hautsi eta etxeko gela batzuk hankaz gora jarri zituzten. Ertzainen esanetan, badirudi dirua edo urrezko bitxien bila sartu zirela. Benta Berri etxetik, berriz, errepideko bizikleta eraman zuten lapurrek. Plazako kooperatiban ere, atea behartuta sartu eta kaxako txanponak lapurtu zituzten. Bestalde, adin txikiko bat ere atxilotu zuten, Aian lapurtutako furgoneta bat gidatzen ari zela.

Uholdeak Euriteak kalteak eragin ditu

Joan den asteburuko euriteek ondorio nabarmenak izan dituzte Aian. Santio Errekan urak gainezka egin eta ermita, zenbait etxabe, frontoia eta jatetxe bat hartu zituen. Bizilagunek autoak tokitik mugitzen, hustubideak garbitzen eta ura bideratzen saiatu arren Santiotik Oriarako errepidea itxita geratu zen. Hala ere, txukunduta dago dena. Aiako Udala kalteak zenbatekoak izan diren aztertzen ari da eta, bide eta errepideetan konponketak egin badira ere, aurki jarriko dira kalteuekin harremanetan.

Altxorraren bila

Badirudi gauza txikiek garrantzia galdu dutela gure gizartean: umetxoek hitzak ez dira kontuan hartzen, gutxiengoek iritzia zapaldu egiten da eta gehiengoari axola zaizkion berriak soilik dute leku albistegietan.

Gure herrietan ere antzeko zerbait gertatu ohi da, guztiok oroitzen gara plaza nagusiaz, udaletxeaz eta alde zaharraz, baina zer gertatzen da auzoekin? Erdigunetik urrun samar gelditzen diren auzoetan ere herritarrak bizi dira eta beharrezkoa da horiekin oroitzea.

Urriaren 14an bertso-afaria izan zen Urdanetako Izarra nekazal turismoan. Lagunarte bikaina nagusitu zen Aiako auzoan eta, saioa aurrera zihoan ahala, bertsolariak gero eta lan hobea egin zu-

ten. Xabier Amuriza eta Xabier Sukia bertsolariak izan ziren giroa jartzeaz arduratu zirenak, baina entzuleek ere parte hartu zuten beren ekarpenekin.

Gaua oso ondo joan bazen ere, hobea izan zitekeen: ez geunden guztiok, lekua bazegoen aiar zein aiarrak ez diren jende gehiagorentzat. Jakina da: *Zenbat eta gehiago, orduan eta hobe.*

Ostiral hartakoagatik diot beti gauza handienen bila joaten garela, jende

Ez gaitezen altxorraren bila hasi, altxorrik handiena inguratzen gaituena da-eta

gehien ahotan dabilzan hitzak ditugula maite; eta etxean ditugun pitxiak, hain txikiak izanda ere, zenbat balio dezaketen ahazten zaigula.

Akatsa da handi gelditzen zaiguna eskuratu nahian, hurbil duguna urruntzea. Saiatuz, nahi dugun guztia lortuko dugu, eta beharrezkoa da aurrera jarraitzea, baina egunero ikusten ditugun auzoei, egunero sentitzen dugun kulturari, egunero kalean gurutzatzen ditugun herritarrei... geureak diren gauzei ez badiegu garrantzia aitortzen, nekez jakingo dugu beste ezer baloratzen.

Bertso saioa joan zen, baina sanmartinak hemen ditugu. Gertu duguna, uki eta usain dezakeguna, ez dezagun gal. Ez gaitezen altxorraren bila hasi, altxorrik handiena inguratzen gaituena da-eta.



Txokoak eta jendea 13. Donostiako Rallya ikusten

Herritar zein kanpotar auto lasterketa zale gutxi batzuk hurbildu ziren 13. Donostiako Rallya ikustera hilaren 5ean. Euri jasa pean errepide ondoan arratsalde osoa pasa zituztenak ere izan baitziren! Lasterketak hartu zuen ibilbidean, aiarrak aritu ziren boluntario gisa errepidea eta bazterrak zaintzen.



AURTEN TALDERIK EZ PLAIEROTAN, BAINA IZAN DITUGU TXAPELDUNAK

Conservas Azkue taldea duzue argazkian, 1990eko Zarauzko plaieroetako finala jokatu zuten egunean. Taldeak hiru urte lehenago, 1987ko apirilaren 26an, irabazi zuen txapelketa. Getariarren kontra jokatu zuten partida eta, luzapenean, 1-0 irabazi zuten, gola Rafa G. de Txabarrik sartuta: Beldarrainek ateratako kórner batean Iñaki Iturainek buruz errematatu, baloia Rafaren hanketara joan eta hark bultzatu egin zuen barrura. Argazkian, zutik, ezkerretik eskuinera: Migel Puertas, Juan Antonio Iturain, Pello Orbañanos, Iñaki Iturain, Joxe Mari Arruti, Joxe Luis Iturain, Gotzon Odriozola, Juan Angel Arruti, Rafa G. de Txabarri eta Joxekutz Exposito. Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Jose Jabier Gimeno, Mikel Olasagas-

ti, Jesus Mari Seguro, Joxe Antonio Beldarrain, Aitor Lertxundi, Iñigo Agirre, Joxe Mari Lizaso eta Agustin Erkizia. Seniorretan irabazi zuen talde oriotarra izan omen zen.

1987ko finalerako osatu omen zuen Iñaki Iturainek bere bizitzan kantatutako lehen bertsoa. Honela zioen:

*Apirilaren hogeita seian
izan zen Gernikakoa,
handik berrogeita hamar urtera
gertatu zan Zarauzkoa
ta bertso batzuk kontatutzeko
oriotarrek egindakoa,
nondik hasi ez dakit baina
zerbait esatera noa.*

[FOTOA: ANA G. DETXABARRI. INFO: IÑAKI ITURAIN]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Oreka energetikoa
Bachen loreak

Beltzurak, ruzegetara, erriare
aldaketa, entzutenak, erriaregarri!

utzi alde batera
emozio negatiboak

beti onak dituzten erriare
eta berrak dituztenak!

943 55726291

Goizeko
KAFFETEGIA

943 83 28 55

Amo Hariztegi, 40. biltegia • ORIO
Autobus parada ondoan

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zuelagarai, Getariako txakolina
Ilargares, ardo gortinalaria
Bodegas Gailur, Senuri de Ladrain
Gailur eta Ardanbegi,
Arabar Terrizoko ardoak

Erriare Gailur, 46 • ORIO • 943 83 03 88 / 83 58 52 • E-posta: bodegaserrasti@zuelagarai.net

“Sukaldaritzan tradizioirik gabe ez dago berrikuntzarik”

Joxe Mari Aizega

Basque Culinary Center-eko zuzendaria

Zuzendaritza ikasketak egin eta Euskal Herriko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean irakasle eta azken horretan errektore orde izan ondoren, **Basque Culinary Center-eko zuzendaritza** hartu du Orion bizi den hernaniar honek. Gastronomia Zientzien fakultatearen saltsan ari da orain.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI ARGAZKIAK: KARKARA ETA VK COMUNICACION

Balea elkartean egin dugu hitzordua Joxe Mari Aizegarekin. Hango sukaldarien artean ibili ondoren, bere hitz batzuk lapikoratu ditugu KARKARAko platean zuen mahaigainera eramateko.

Basque Culinary Center abian jarri du-zue orain dela gutxi. Zer da?

Gastronomia eta sukaldaritza arloan formazio, ikerketa eta berrikuntza gune bat da guretzat. Horren baitan dago unibertsitate fakultate bat, Gastronomia Zientzien fakultatea, Mondragon Unibertsitatearen zati dena eta aukera ematen duena gastronomia eta sukaldaritza

unibertsitate titulua eskuratzeko; profesionalentzako masterrak eta ikastaroak ere badauzkagu; zaleentzako ere izango dira ikastaroak asteburuetan: euskal sukaldaritzari, mundukoari edo sukaldaritza berritzaileari buruzkoak. Ardoen eta edarien ingurukoak ere izango dira eta, horretarako, jatetxe ezagunetako sukaldariak ekarriko ditugu.



Askori bitxia irudituko zaio sukaldaritzan unibertsitatean ikastea.

Sukaldean jarduten ikastea, maila batearaino, egin daiteke modu autodidakta batean, baina sukaldaritzan eta gastronomiaren arloan, horretatik bizi nahi duenarentzat, formazioa oso garrantzitsua da eta goi mailako profesional batek zein gai ikasi behar dituen ikusita, are gehiago. Teknikoki oso ona izan behar da, teknologia berriak erabili behar ditu, zerbitzua eta bezeroen arreta ezagutu, baita jatetxeen kudeaketa ere... Era berean, berrikuntzan aritzeko, jakin behar du sukaldean ari denean prozesu fisiko eta kimikoak gertatzen direla. Bestalde, guregan mundu osotik datoz, eta ulertu behar dute sukaldaritzan lurralde bateko kulturaren zati dela.

Ikerketa ere egingo duzue Basque Culinary Center-en, ezta?

Elikadura eta gastronomiarako ikerketa zentroa daukagu eta han gaur egungo gizartearen elikadura ohiturak ikerketak ditugu; zentzumenei buruzko ikerketak ere egingo ditugu, zerbait jaten dugunean dastamenak, usaimenak, entzumenak, ukimenak, guztiek bat egiten baitute; teknologia berriak ere izango dira ikerketa gai; etxerako zein industriarako janaria prestatzeko tresnak; eta jatetxeen kudeaketa. Elaborazio berriak ere ikertuko ditugu: aurrez prestatutako jakiena, zaharrentzako zein behar bereziak dituztenentzako jatekoena... Esparru zabala da, ohituretatik prestateta berrietaraino, gizartearen elikadura ohiturak aldatzen doazelako.

Sukaldean irakasteko eta ikerketarako jatetxeekin ari zarete elkarlanean.

Gure fundazioko kide dira sukaldari eta jatetxe oso ezagunak; besteak beste, Akelarre, Arzak, Berasategi eta Subijana. Beste ia 50 sukaldarirekin ere hitzarmenak sinatuak ditugu, eta enprekin ere badaukagu lotura; Fagor taldea, Eroski, Martiko... Bestalde, hain ezagunak ez diren elikadura eta gastronomia enpresa txikiagoekin harremanetan gaude proiektu zehatzetarako. Basque Culinary Center inguruko enpresak garatzeko ere bada, beren produktu berriak garatzerako, haien zerbitzura dago.

Sukaldari famatuek ez ezik, euskal gastronomiak oro har, zergatik du hainbeste miresmena Euskal Herriatik kanpo?

Euskal sukaldaritzan, munduan, erreferentea da, baita sukaldariak ere: Aduriz, Atxa, Arbelaitz, Argiñano, Arzak, Berasategi, Subijana... Gastronomiak, euskal gizartearen, presentzia handia dauka. Elkartean, familietan, ospakizunetan jatea oso presente dago. Badakigu ongi jaten eta produktu onak baloratzen. Tes-tuinguru horretan sortu dira zenbait

“Basque Culinary Center gastronomia eta sukaldaritzan arloan formazio, ikerketa eta berrikuntza gune bat da. Horren baitan dago unibertsitate fakultate bat, Gastronomia Zientzien fakultatea”

“Elikadura eta gastronomiarako ikerketa zentroan zentzumenei buruzko ikerketak egingo ditugu, zerbait jaten dugunean dastamenak, usaimenak, entzumenak eta ukimenak, guztiek, bat egiten baitute”

“Euskal sukaldari ezagun batzuk ez lirarteke dauden tokian egongo gure gizartearen gastronomiak duen presentziarik gabe. Baina, era berean, euskal gastronomiak ez luke hainbesteko oihartzunik izango sukaldari horiek izan ezean”

“Gastronomia beste kultura batzuekin konektatzeko izugarritzko zubia da. Kulturartekotasuna bultzatzeko beste sukaldeak ezagutzea oso interesgarria da”

“Nabarmena da janaria prestatzen den familietan elikadura hobea dela eta hori bultzatuko dugu. Izan ere, familia gazte batzuetan galtzen ari da etxean sukaldean jarduteko ohitura”

“Orio, turistentzat ere, leku paregabea da: hondartza, itsasoa... eta hemengo jatetxeak arraina jateko leku bereziak dira”

sukaldari, berrikuntza ardatz hartu, hainbat gauza aldatu eta munduan izen handia lortzen dutenak. Sukaldari horiek ez lirarteke dauden tokian egongo gizartean dagoen giro hori gabe, baina, era berean, gaur egun, euskal gastronomiak ez luke hainbeste oihartzun izango sukaldari horiek gabe.

Zuen asmoa da euskal gastronomia nazioartera zabaltzea. Horretarako, hemengo sukaldariak kanpora atera ala kanpotarrak etorri behar dira?

Proiektu hau oso sustraitua dago hemen, baina nazioarteko ikuspegia dauka, horregatik izena ingelesez izatearena. Uste dugu, sukaldaritzan ikasi nahi duen jendea, edozein dela haien jatorria, asko daukagula erakusteko eta gauza asko unibertsalak ere badira. Esaterako, nola txertatu sukaldaritzan tradizioa eta berrikuntza. Euskal sukaldaritzak hori egiten oso ongi asmatu du. Guk nahi duguna da jendea mundu osotik etortzea gurera ikastera eta, gero, beren herrietara itzultzen direnean, gure enbaxadore izatea, euskal sukaldaritzari buruz hitz eginez. Gurean, euskal gastronomiari buruzko ikasgai zehatzak badaude eta, aldi berean, nazioarteko errezetak ere erakutsiko zaizkie.

Gure jatekoa munduratu bai, baina zu kanpoko jatekoa probatu zalea zara?

Bai, niri hori aberatsa iruditzen zait. Gurea mantentzea helburu bat izan behar da, gure produktuak, ohiturak... Baina gastronomia beste kultura batzuekin konektatzeko izugarritzko zubia da. Kulturartekotasuna bultzatzeko beste sukaldeak ezagutzea oso interesgarria da. **Sukaldea ez ezik, elikadura osasunaren arteko harremana ere landuko duzue.**

Ohiturak ezin dira osasunean bakarrik oinarritu eta, elikaduraz hitz egitean, oreka egon behar da plazerraren eta osasunaren artean. Beraz, erakutsiko dugu jatekoa ongi prestatzen, baina, aldi berean, dieta osasuntsuei garrantzia ematen.

Orain ikusten da osasunari kalte gehien egiten dieten jatekoak janari industrializatuak eta aurrez prestatuak direla. Nabarmena da janaria prestatzen den familietan elikadura hobea dela eta hori bultzatuko dugu. Izan ere, familia gazte batzuetan galtzen ari da etxean sukaldean jarduteko ohitura, produktu freskoak, bertakoak eta garaiokoak erostekoa eta hori osasuna da.

Beharrezkoak al dira ohitura horiek zabaltzeko Orion egin izan diren bisigu, erreboilo edo txuleta festa modukoak?

Euskal Herrian, herri guztietan, egiten dira gastronomiarekin lotutako festak: sagardoa, txistorra, buzkantzak... ardatz hartuta. Herri bakoitzaren dinamikan dago horrelako ospakizunak egitea eta



1. Baleako sukaldean. 2. Baleako sukaldariei begira. 3. Basque Culinary Center eraikina, pilatutako platerak irudikatuz. 4. Inaugurazio egunean, Atxa, Aduriz, Arzak, Subijana, Arbelaitz eta Berasategirekin. 5. Mahaira eserita, gisatua usaintzen.

bakoitzak aurkitzen du dagokion produktua, zein dimentsiorekin egin, nola... Baina jendeak estimatzen dituen janaria eta edaria tarteko diren festak.

Pintxo-txikiteoa ere jarri zuten abian tabernek. Pintxoak lagunekin egoteko aitzakia izan daiteke eta hori pizteko ekimen polita da. Pintxoetan ere berrikuntza dator eta barrako pintxo berriek atentzia eman arren, batzuetan nahiego dugu betiko urdaiazpiko pintxoak jatea. Nik inoiz probatu izan ditut, baina deserosoak ere badaude, bi eskuekin jan beharrekoak, baina saiatzen naiz.

Orio bezalako herrietan sukaldaritzaren berritzailea eskaini beharko litzateke?

Aberatsena da denetarik egotea. Denoi gustatzen zaigu tradizioa, esaterako, bisigua olio errearekin jatea; baita batzuetan zerbait berria eta berezia probatzea ere. Berrikuntza ezin daiteke egon tradizioarik gabe; beraz, saiatu beharko genukeen denetik izaten.

Gastronomiak turismoa ere erakartzen du. Oriok horiek biak uztartzeko aukera ematen duela uste duzu?

Gastronomian interesa duten gero eta turista gehiago mugitzen da munduan, baita Euskal Herrian ere. Jendeak motibazio hori badauka eta guk hori probatu behar dugu. Jendea etortzen da sukaldari ezagunen jatetxeetara edo Donostiako Alde Zaharrera pintxoak jatera... eta behin etorrita deskubritzen dituzte herri txikiak, hemengo produktuak eta badaukagu ahalmena gure gastronomia zabaltzeko. Oriok leku paregabea da hondartzara, itsasora... eta hemengo jatetxeak arraina jateko leku bereziak dira. Basque Culinary Center bera ere ireki nahi dugu bisitariarentzat. Azaroaren erdi aldean kafetegia irekiko dugu eta han, noski, ikasleek prestatutako jatekoak izango dira. Aurrerago, berriz, jatetxe berritzaileago bat irekiko dugu.

Zer aholku emango zenioke sukaldaritzan hasi berri duen gazte bati?

Sukaldaritzaren gustatuz gero, ikasteko eredu berritzailea eta erakargarria dugula esango nioke eta asko gozatu dezakeela. Ikasitakoa segituan esperimentatzen da, eta pixkanaka ezagutza konplexuagoak eta zientifikoagoak sartu arren, mundu hori gustatuz gero, oso aktibo izango da, apunteak hartzen baino denbora gehiago pasatuko dute praktikan.

70 ikasle dauzkagu lehen ikasturtean, gehienak 18 urte ingurukoak, eta daukaten ezaugarri komuna da gastronomiarekiko eta sukaldaritzarekiko interesa eta motibazioa. Irakasleei dagokienez, berriz, denetarik daukagu. Sukaldariek pisu handia dute, baina horiez gain, lehen ikasturtean baditugu historiako, informatikako, zerbitzuetako adituak ere.

ETXEKO SUKALDETIK JATETXERA

Basque Culinary Centeren hasi aurretik sukaldaritzaren produktua onak, nekazaritzaren gustuko zituen Joxe Mari Aizegak. Proiektu honetan lanean hasi zenetik oso gustura sentitu dela esan digu: *Neukan interes hori nolabait areagotu egin da, oso mundu erakargarria da.*

Joxe Mari Aizegarekin hizketan ari ginela, haren seme Gilen eta Paul gurekin izan ziren eta horien esanetan behintzat, *sukaldari ona da aita. Bai, etxean sukaldean aritzen naiz eta ongi moldatzen naiz.* Semeei egiteko gauza errazak gustatzen zaizkiela eta bera ere gauza xumeak prestatzen ongi moldatzen dela esan digu: *solomoa, pizza... etxean egiten dugu.*

Berari jateko, berriz, gauza xumeak, baina denetarik gustatzen zaizkio: *barazkiak, gisatuak, arroza... gustuko ditut horiek guztiak.* Balea elkartean, ordea, hango lapiko batera begia luzatu eta *oilasko gisatua ikusi dut eta oso itxura ona zeukan; gainera, nik gustuko dut patatekin jatea.* Arraina ere gustatzen zait... *denetarik probatu zalea naiz.*

Probatu bai eta etxeko sukaldean gauzatxoak prestatu ere bai, baina lagun artean sukaldean jardutea gehiago kostatzen zaiola aitortu digu. *Lan hau dudanetik lagunek uste dute egin ezin ditudan gauzak prestatu ditzakedala eta gaizki ulertu dezente egon daiteke kontu horrekin.*

Beraz, aukeran, lagunekin nahiago du jatordu baten aitzakian beste planen bat egitea. Gainera, Oriok horretarako aukera ematen duela dio Joxe Mari Aizegak: *Orioren gonbidatuz gero, plaza inguruan pintxo eta trago bat hartu eta gero jatetxe aukera zabala dago: Xixario, Katxiña, Joxe Mari... zaila da bat aukeratzea, baina arrain oso ona ematen dute eta oso ongi prestatuta gainera. Kalitate oneko sukaldea da, arraina da oinarria eta, beraz, zaila da ez asmatzea.*

Hala bada, etxeko sukaldetik jateko baterako pausoa, laburra bezain zuzena, etxeko txikiak zein lagun mokofinagustura uzteko modukoa.

Amorruz

uek ere, nire tankeran, izango duzue guztiz zuen onetik ateratzen zaituzten zer edo zer. Amorru biziz betetzen zaituzten zerbait, baina horretarako arrazoi txukunik emateko kapaz ez zaretena. Beste inork horrelako gorrotorik ez dion gauzaren bat. Jende aurrean kontatzean ulertzen zaila egiten den horietakoa.

Bada, Orion bertan horrelako gorrotoa sortzen didan gauza bat bada. Buruan kabitzen ez zaidan gauza horietakoa, batere fundamentu gabea. Leku jakin bat da eta bertatik pasatzen naizen bakoitzean korapilo ikaragarria sortzen zait tripa barruan. Marru batean hasteko gogoia izaten dut pasaezan: zer egiten duzue zuek denok hemen?

Arazoirik ez dut. Baina korapilo hori askatu beharra, bai.

Hara, izenak berak ere nazka galanta sortzen dit. Lehenengo aldiz entzun nuenetik, gainera. Eta jendeak inuzente-inuzente barneratu egin du. Orain

bolo-bolo dabil oriotar guztien ahotan. *Plazoletan geratu naiz halakorekin, plazoletan izaten da azoka, plazoletan zain duzu ama...* Plazoleta gora eta plazoleta behera. Tira, bada, mesedez eta faborez, bada izen egokiagorik gure hiztegi zaballean, ez al da hala? Pentsa, testu zuzentzaileak ere ez du batere maite, gorri-gorri dut eta pantaila dagoeneko hitz hori azpimarratzearekin!

Ez dut uste Orion klimatologikoki leku okerragorik dagoenik. Ba al da leku erreagorik bero denean? Ez al duzue haizeak eramango zaituzten beldurrik izan bertan? Ba al da leku tristeagorik esertzeko negu hotzean petril gris horiek baino? Ez al du ezker eskuin eta behetik gora euria egiten bertan herriko beste bazterretan euria goitik behera ari

Ez dut uste Orion klimatologikoki leku okerragorik dagoenik

duenean? Ikastolako ditzosozko plazoleta hori. *Casasbarataseko* geranio zarrak berdegune gutxitzat dituen paisaia idilikoa.

Eta bertaratu eta beti jende andana izaten da. Merezi ote dute ume gajo horiek horrelakorik? Jolaserako mila txoko eder etortzen zaizkit arrapalada batean. Ilegala beharko luke haurrei hor minutu pareta baino gehiago pasarazteak, horrelako paraderorik merezi ote dute, gajok?

Sentitzen dut arratsaldero Ikastola pare horretan biltzen zaiten koadrilaren sentimenduak urratu baditut. Barranak askatzea izaten omen da sendabiderik egokiena. Goiko hitz hauekin hori lortu badut, laster ikusiko nautzue dilin-dalan kulunpioetan dantzan. Beti ere izen makarroso hori aldatzeko kampaina bat abiarazten baldin badu Udalak. Herriak erabaki dezala. Baina nik badaezpada ere to proposamena: *Hemendik hobe ospa* enparantza.



ITZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Aseguru-egilea
ASEGIURUAK
Abeslari, 4-2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Igo zaitoz haize berrietara!
Galeña I
943890416 - 677149334
galeña1orio@hizimail.com

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

iñaki argazkiak caperochipi
ezkontzeka asmorik bai?
www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

943 83 09 86
KOASTA
Wifi zerbitzua
Konektatu gure onartza...

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe
aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
onpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa
Tel: 943 52 42 25 Fax: 943 83 54 38 itsasadarra@itsasadarra.com
Ita-Ordo 4, beheko. 20210 Orto

Olé torero!

Azaroaren 4rako egingo al higuke KARKARArako iritzi artikulua bat, adarretatik helduta atalean? Bai horixe! Momentuan egutegiari begiratu eta urriaren 26an bizi ginela konturatu nintzen. Egunak sobera nituen eta ideiak, berriz, mila.

Goizean goiz kafea hartu banuen ere, ez nuen lortu begietako makarrak kentzerik. Jarraian Semantikako klase astuna nuenez, koadernoko orri koadrikulatu bat hartu eta boli-grafoa martxan jarri nuen. Ideiak soilik etorri zitzaizkidan burura, esaldi motzekin batera. ETari buruz idaztea erabaki nuen eta hitzak arrapaladan etorri zitzaizkidan. Orrialde erdi bat idazterako, klasea amaitu zen, eta probetxuzko zerbait egin nuenaren sentsazioarekin orria erditik tolestu eta motxilan sartu nuen.

Ostiral gauean KARKARA berriari errepaso

azkar bat ematen ari nintzela Eli Huegunen iritzi artikulua irakurri nuen. Ordura arte semantikako klasean idatzitakoa ezabatu eta zuzenean berak idatzitako artikuluari erantzungo niola erabaki nuen. Berak idatzitakoa erekin ados ez nengoen esaldiak azpimarratu, eta argudioz betetako iritzi artikulua idazteari ekin nion.

Zezen koxkorraren paperean jarri nintzen, eta nire babes bakarra adarrak zirela esanez, toreatzailea toreatu nahi nuen. *Olé!* Eliren ideia batzuk banderilla gisa sentitzen nituen, ez nengoen ados esaten zuenarekin. Frankismo garaian baserriko aitona-amonek sutondoan landutako abertzaletasun folklorikoan ez dut sinesten, espainiar gobernuak izandako terrorismoaren aurkako estrategiaren fruitu lehorrak ezin ditut irentsi, eta abar. Izenburua ere pentsatu nuen, Gora PETA –*People for the Ethical Treatment of Animals*–.

Goizeko ordu batak aldera oheratu nintzen, metafora hutsak sortu nituelakoan. Baita zera ere, orrialdea esaldi txoroez bete, eta ezer esan ez. To, arrebaren iritzia. Berak apur bat goxoago esan bazidan ere, finean gauza bera adierazi nahi zidan.

Larunbatean jai, igandean jai, astelehenean jai eta asteartean jai. Zenbat maite ditudan santu horiek.

Azaroaren 3a da eta biharko artikulua bidali behar diot Ikerri. Urriaren 26an baino okerrago nago, egunak faltan ditut eta ideiak, berriz, zero. Hutez betetako idatzia egingo dudala erabaki dut eta artikulua santu honen kronologiaz jardutea besterik ez zait bururatu.

Ez dut iritziarik plazaratu. Ez ETaren inguruan, ez zezenen inguruan, ez santuen inguruan, ez ezeren inguruan eta, behingoz, berdindu zait. Onartu dezagun artikulua bat irakurtzen hasi aurretik, edonork egilea nor den lupaz begiratzen duela. Aurreiritziz gainezka gaude eta ingurukoak harriztea zaila izaten da. Beraz, nire testua irakurri duen orok pare bat minutu alperrik galdu dituela konturatu bada, bejondeiola, horixe baitzen helburua. Artikulu santuaren izenean, amen.

Euri-uragure ardura

Aste bukaeran euria izan da hizketarako gai, eta horrelako zaparradekin nor da eguraldiari buruz ez hitz egiteko gai?

Eguerdi euria, arratsaldeko euria da esaearen arabera, baina euriak osorik hartu zuen aste bukaera, goiz, eguerdi, arratsalde eta gau, atertu gabe, gainera.

Errioko behera plastikozko botila, poltsa, zuhaitz adar eta arbola eta noizean behin hainbat silo-bola. Tanten artetik, kristalaren atzetik begira aritu nintzen noiz mareak gora eta behera egingo eta nola itsasora bidean indar handiz zihoan uhola. Baina, aho zabalik begiratu arren, errioko zikinkeria nori axola?

Astelehena eta oraindik goitik behera ura, euria, eguraldia, hotza, uholdeak, kalteak... besterik ez dator gure burura; zer esanik ez telebistak erakusten digun modura.

Asteartean zerua garbi, baina errioko urak zikinak. Pilatutako adarren artean, ahateen lagun, plastikozko botilak, ontzi arinak, edukiontzira botatzen norbaitek ez ditu egin ahaleginak.

Urak aurrean hartu eta ekarritakoen artean kamioi baten atzeko parte. Uretan ez, izotzetan gordetako jatekoentzat akabo aterpea.

Urak galdu du kolorea eta irabazi zikinkeria eta agerian utzi du garbi usteko askoren zurikeria.

Zezen koxkorraren paperean jarri nintzen, eta nire babes bakarra adarrak zirela esanez, toreatzailea toreatu nahi nuen. Olé! Eliren ideia batzuk banderilla gisa sentitzen nituen, ez nengoen ados esaten zuenarekin. Frankismo garaian baserriko aitona-amonek sutondoan landutako abertzaletasun folklorikoan ez dut sinesten, Espainiar Gobernuak izandako terrorismoaren aurkako estrategiaren fruitu lehorrak ezin ditut irentsi, eta abar luze bat.



LORETXU JATEAK

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

LURDES
AZKALDEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ilargiaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Estorako balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta enkusketak

| | | |
|--|---|--|
| <p>Palatia Agre industrialeko Agote, 5 20740 Zastea</p> | <p>San Francisco, 1. 20002 Zesteak</p> | <p>Arka Landa, 21. 20910 Orio</p> |
|--|---|--|

Tel: 943 83 00 24

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L

INDUSTRIAL BARRIOAN

Santiago ezkoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR kalitate ziurtaginduna

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondan
Tfnua: 943 83 01 89

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: Or2137a@hezkuntza.net

LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik agiten dugu.

Presupuestuak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnua: 943 59 59 00

TANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Alderoko zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Korcjak, eskalak, tranbizioak...

Araba kalea, 35 Zarauz
Tel: 943 89 48 37 / fax: 943 89 48 48
e-mail: haztezp@haztezp.net

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arantzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 40
Tf. 943 83 00 24

uranga
aurkezketak

Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

FISIOTERAPIA - Garbizo Ardege, Iba Norala Wierszen
MUTRIZONETA - Garbizo Ardege

sinergia *investigacion fisioterapia*

Ibañe ando, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 74 85 95

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Gaia emanda Zergatik botika generikoak?

Espainiako Osasun Ministerioaren eta autonomia erkidegoetako osasun arduradunen erabakiz, aurrerantzean generikoen artean merkeena saldu behar dute farmazietan.

Botika errezetentzat formula berria

Farmazian ordaintzen den faktura merkatzeko asmoz, sendagileek botiken errezetak egiteko modua aldatuko duen errege-dekretua kalderatu du Espainiako Gobernuak.

Horren ondorioz, gaixoen artean zalantzak, nahasmenduak eta gaizki-uler-tuak sortu daitezke. Izan ere, orain, ikusiko dute errezetetan ez duela jartzen lehen medikuak emandako aginduan jartzen zuen gauza bera. Eta, era berean, farmazietan, izenez edo kaxaren itxurari edo koloreari erreparatuta, ezezagun zaizkion medikamentuak ematen dizkiotela, lehengoengandik ezberdinak, alegia.

Lerro hauekin, lege aldaketa horrek sortu duen zalaparta baretu nahi dugu eta, bide batez, jendea lasai dadin argibideak eman nahi genituzke. Horretarako, lehendabizi, hainbat kontzeptu azaldu behar dira ezinbestean:

Farmazia-laboretegi batek marka komertziala duen molekula bat merkatu-ratzen duenean, kontuan hartu behar dugu, horren atzean, sekulako ikerketa lana dagoela eta ikerkuntza lan horretan diru asko inbertitu dela. Ondorioz, horrek eragina izango du salmenta-prezioan, markaren patentea indarrean den bitartean. Patentearen epea amaituta-koan iritsiko da botika generikoa mer-katura, farmazietara.

Zer da, ordea, medikamentu generi-koa? Osagai aktiboaren izenarekin mer-katuratzen den botika da, marka origi-naleko medikamentuaren baliokidea dena, hain zuzen ere.

Medikamentu batek osagai aktibo ba-karra edo batzuk izan ditzake, betiere eszipiente batean, modu homogeneoan banatuta.

Eta osagai aktiboa, zer da? Botika ba-ten farmakologia aktibitatea eragiten duen sustantzia. Esate baterako, *Ter-malgin* markako botikaren osagai akti-boa parasetamol da. Hau da, *Termalgin* medikamentua hartzen dugunean, oi-narrian, parasetamola hartzen ari gara.

Kontuan hartu beharreko beste kon-zeptu bat bio-baliokidetasuna da. Hau da, antzeko hainbat dosifikaziotan dago-en osagai aktibo berbera hartuz gero, abiadura eta kopuru berarekin iritsi dai-teke odol-zirkulazio sistemara. Beraz, bio-baliokideak diren botiken sestra-

kurba plasmaticoak gainjarri daitezke eta onargarriak eta aurrez ipiniak diren mugen barruan daude. Hala bada, gaixo-arengan eraginkortasun bera izango du.

Aurrez azaldutako adibide bera har-tuz gero, esan beharko genuke, gauza bera dela *Termalgin* 500 mg. edo paraze-tamola 500 mg. hartzea. Gaixoarengan efektu berbera izango lukete biek, bio-baliokideak direlako. Badira horren an-tzeko beste hainbat adibide ere: *Clamoxyl* 500 mg. eta amoxicilina 500 mg. parekideak dira...

Azalpen horien ondoren, aurreran-tzean, farmaziara datozen gaixoek jakin beharko lukete, errezetan osagai aktibo-aren izena jarri arren, lehen hartzen zuen medikamentu bera hartuko duela hemendik aurrera ere, eta ondorio bera izango duela, baita segurtasun berbera-ekin hartu ahal izango duela ere. Gaine-ra, abantaila bat ere izango duela: askoz merkeagoa izango da botika. Izan ere, salduko diegun botika generikoa beti izango da daukagunetatik merkeena.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Farmazialarien elkargoek Osasun Saila-rekin egindako hitzarmenaren arabera, botika generikoren bat izan ezean, beti ere batere gabe geratu direlako, marka-koa saldu ahal izango da, batez ere la-rrialdi kasuetan. Medikuek ere, komeni-garria dela uste badute edo behar tera-peutiko zehatz baten aurrean, markako botiken errezetak egin ahal izango di-tuzte.

Lasa farmazia

Lehen hartzen zuen medikamentu bera hartuko duela hemendik aurrera ere jakin behar du gaixoak eta ondorio bera izango duela, baita segurtasun berberarekin hartu ahal izango duela ere. Gainera, askoz merkeagoa da botika

Sega

bataioak
lehen jaunartzeak
ezkontzak
150 mahaikide
aparkaleku pribatuak

menu bereziak
ikonsultatu

657 838 850

443 832 229

Santoreka

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. era
telefon: 943 83 08 12

PERTS ANAK

A
K
O

M
A
Z

Material: PVC
Venezianak
Moterrak...

TEL: 943 839 01 MUGIKITZA 600 70 52 27

Ipuin ekologisten bilduma polita

Kritika Ipuin liburua

Josu Galdos Kazabon, *Zuhaitz zaharrenaren heriotza*. 72 orrialde. Desclée De Brouwer argitaletxea.

Aurrena, lurra, ura, sua eta haizea sortu ziren, eta sortu eta berehala maitasunezko dantza batean murgildu ziren. Maitasun hartatik izakiak sortzen hasi ziren; landareak, arrainak, hegaztiak, ugaztunak eta gizakiak. Horrelaxe hasten da liburuari izena ematen dion ipuina: *Munduko zuhaitz zaharrenaren heriotza*. Ipuinean gizakiak munduari eragindako galbidea erakusten da, hondamendi ekologikoa, gizonak motozerra baten bidez zuhaitz zaharrena bota eta txikitu zueneko. Ipuinak baina, erakusten digu izadia indartsuagoa dela gizakia baino: *gizakiak esnatu zirenean, laster hil ziren gosez eta egarriz...*

Ekologia, izadiaren oreka, munduaren etorkizuna... oso modu grafikoan agertzen zaizkigu Josuren ipuinetan, haurrek erraz ulertzeko moduan adierazita, bihotzeraino iristeko eran.

Irunen jaio eta Orion bizi den gaztearentzat lehenengo ipuin-liburua da *Zuhaitz zaharrenaren heriotza*. Bertan berderatzi ipuin labor biltzen ditu: irakurleak mendiaren misterioan eta basoaren ma-



Oso sinplea da liburuaren azalaren diseinua. DESCLÉE

gian murgilduko gaituzten eta lurraren indarra erakutsiko diguten ipuinak.

Natura eta kulturaren arteko talka leuntzeko, ipuinak umore sotil baten bidez apaintzen ditu Josuk: zuhaitza hazi buru gainean, zuhaitza gizakitu eta mutila zuhaiztu eta, jakina, zuhaitza atera galtzaile.

Bere opera priman bizitzari

buruzko jakinduria erakutsi digu idazle gazteak eta, horrekin batera, naturari dion maitasuna eta haurrentzako duen sentiberatasuna. Ipuinotan barne mundu aberatsa erakutsi digun Josuk orain dela gutxi beste ipuin-liburu bat eman du argitara: *Ipuhinak*.

[IÑAKI ITURAIN]

Ikasleak idazle
Xabier Makazaga

Bordatxoko espaloia

Gelato eta Bordatxo arteko errepidean oinezkoen gunea jartzen du. Baina, egia al da hori?

Jendea *espalo*i hori igarotzen ikustea oso zaila da, autoak etengabe pasatzen baitira. Zona horretan 10 km/h-ko abiadura maximoa ipini dute seinale baten bidez, baina, hala ere, oso erraza da istripuren bat izan eta aberiarren bat egitea. Ara-



zoaz kezaketen garen bakoitzean gauza bera erantzuten digute: *Baina hor*

oinezkoek dute lehentasuna. Eta hori entzutean nik beti pentsatzen dut *Zer lehentasun behar dugu, eremu hori oinezkoentzat bada?*

Nire iritziz, arazo hori konpontzeko irtenbide bakarra Gelato eta Bordatxo arteko errepidea oinezkoentzat soilik jartzea izango litzateke. Horrela herriko irteera Txankako bide egokitua bilakatu eta sarrera moilatik zehar izan dadin, festetan egiten duten bezala.

Irtenbidea, Gelato eta Bordatxo arteko errepidea oinezkoentzat soilik jartzea

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
Tel: uranga@euskalnet.net
Telefon: 941 831236 Euzko Gudarai, 5

tel/fax: 943 89 00 69
Euzko Gudarai, 4. 20100 ZARAUZE
URBIDE
ITURGINZA, BERDGINZA, GASA, BAINU ERAKUSKETA

KOLON TXIKI
Herriko Erparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

MIRANDA
Gelato eta berriz, eskadara...
betar dinez auzo bakoitzeko
egunero ditzakigu
Urdaneta bidea, 3 - 46004 82 700 ZARAUZE

» HANDIK ETA HEMENDIK



“Nire burua tripodearekin grabatu dut, eta grabatutakoa ikusitakoan, uzteko gogoia eman dit. Albistegietan gustura egoten naiz, baina aurpegia eman behar denean ez naiz hain ondo sentitzen”

“Trainerua punta-puntan ibili denean ere, garaipenen atzetik sufrimendua, esfortzua eta izerdia egoteaz gain, mina eta zauri ugari ere badago; barruan geratu diren arantzak dira”

Ibon Gaztañazpi, kazetaria, Urola Kostako Hitza, 2011-10-27

» OSPAKIZUNA



Ezkondu eta bi egunera festa

Iñaki Makazaga eta Hector Sanchez, urriaren 20an, ostegunez, ezkondu zituen Ekiñe Saizar zinegotziak Orioko Udalean. Urriaren 22an ospatu zuten etxeokoen eta lagunekin, bazkaldu aurretik San Martinen otoitzaldi bat egin eta gero. Gaueko ordu txikiak arte luzatu zen bazkalosteko festa eta, gauerdia baino lehen, Bordatxo tabernaren kanpoan txarangak abesti bat eta guzti jo zien ezkondu berriei.

» ZORIOXARRAK!

Ehiztari zikinei

Ehiztari guztiak ez dira zikinak; baina batzuk zikin askoak dira, bai koanto!

Itxaspeko buelta egitera joaten bazarete, toki batean baino gehiagotan ikusiko dituzue eskopeta-kartutxo hutsak, lurrean botata, koloretako metatxoak osatuz.

Ez dirudi asko eskatzea denik erabilitako kartutxo-azal horiek jasotzea, behin tiroa bota eta gero. Gizalegeak eskatzen du ehiztariak mendia txukun utzi behar duela, aurkitu duen bezalaxe behintzat, eta ez zerri-zerri eginda.

Badakigu denak ez direla horrelakoak; baina guk txoko honek ematen digun aukera baliatu nahi dugu zikin horiei gure zoriotxarrik zaratatsuenarekin emateko.

Nahikari

HAIK DENDA

Arribea 4161, 35
28100 - Oriu
Tel: 943 83 15 27
www.nahikari.es

Karkararen laguntzaile izan nahi dut

Izen deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:..... Posta kodea:..... Telefonoa:.....

KARKARA aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago KARKARARI urteko 35 euroko laguntza emateko. Hauek dira nire kontu korronteko datuak:

ENTITATEA SUKURTSALA KD KONTU ZENBAKIA

karkara —ORIOKO ETA AIKO ALDIZKARIA—
Kultur etxea. 20810 Oriu - 943 83 15 27 - karkara@karkara.com

“Magdalenaren irudi zoragarria daukagu Orion, hori berrituko nuke”

Rakel Nacenta

Zaharberritzean aditua

Arte ederretan lizentziatu zenetik zaharberritze prozesuak izan ditu gustuko Rakelek. Zumaiako eskoileran zegoen mosaikoa zaharberritu du orain, nahiz eta proiektua 1997an idatzi. Pozik dago berarentzat berria den teknikan egindako lanagatik.

IKER GURRUTXAGA

Gurasoak aski ezagunak dira Orion. Baita anaia ere. Bera, gaur egun, Zumaian bizi da, hangoa baitu bikotekidea. Mosaiko bat zaharberritu du bertan, eta horrek erakarri du gure interesa.

Proiektua 1997an idatzi zenuen, urte batzuk pasata egin duzu. Nolatan bururatu zitzaizun hori zaharberritzea?

Fakultatean ikasle nintzela, Zumaiako mutil batekin hasi nintzen. Paseatu eta paseatu, mosaiko hau ikusten nuen egunero eta egoera txarrean zegoela ikusten nuen. Karrera bukaerako proiektua behar, eta egunero ikusten nuen mosaikoz gogoratu eta hura zaharberritzea otu zitzaidan. 2007an erabaki zuten horrekin aurrera egitea, eta krisia dela eta 2010ean ekin nion lanari.

Aurretik beste lanik egin al duzu?

Bai, Orioko elizan bertan eginak ditut bi tailuren zaharberritzeak. San Ramon Nonato eta San Paulo. Andres Garmendiak, aurreko apaizak, utzi zizkidan lanterako. Praktika bezala ongi etorri zitzaizdan.

Zumaian elizako atarian dagoen San Pedro ere zaharberritu nuen. Harrizkoa zirudien, zikina zegoen harrizko irudia. Baina egur polikromatutakoa zela ikusi genuen zaharberritzen hasitakoan. Horrez gain, gurutze-bidearen irudikapenean oinarritzen diren 14 obra ere berritu nituen. Hori guztia 2008an egin nuen lan-taldearekin.

Eskoilerakoa izan da nire lehen mosaikoa. Lana 1960an egin zuen Vicente Rodilla valentziarrak, patentatu zuen teknika berrian: mosaikoa erliebean.

Lan handia emango zizun, ezta?

Bai, egia esan, lan handia egin dugu mosaikoa zaharberritzen. Bi eta hiru milimetroko lodierako zatiak daude, baina batzuk askoz finagoak dira. Horretarako, bitxi-dendetan eta erloju-dendetan erabiltzen den tresneria behar da. Gainera, jarri zuten egunean erori egin zitzairen, eta orduan hasi zen lana hondatzen.

Material ugari erabili ziren eta horregatik gremio askorekin egin behar izan dut lan. Baina aberasgarria izan da, beste gremioetatik ere asko ikasten baita.

Proiektua idatzi zenuenetik atzera asko hondatu al zen mosaikoa?

Lanean hasi ginenean 5 pusketatan zegoen mosaikoa. Baina garbitzen hasi eta puska txikiagotan zatitzen hasi zen. Azkenean, 12-13 zatitan txikitu zen.

“Orioko elizan bertan eginak ditut bi tailuren zaharberritzeak. San Ramon Nonato eta San Paulo. Andres Garmendiak utzi zizkidan”

“Bi urtez beirateen zaharberritze ikastaro bat egin dut eta, orain, mundu horretan ere sartu nahi nuke, tailua eta mihisearekin jarraitzeaz gain”

Lan berririk eskaini al dizute honen harira?

Mosaikoan, ez. Nire kontura egiten ditut lan gehienak, eta orain egile beraren beste mosaiko bat zaharberritu nahi dut. Barakaldon dago eta hangoekin kontaktuan jarri beharrean nago.

Bi urtez beirateen zaharberritze ikastaro bat egin dut eta, orain, mundu horretan ere sartu nahi nuke, tailua eta mihisearekin jarraitzeaz gain.

Orion zer zaharberrituko zenuke?

Elizako erretaulan tailu pila bat daude eta haiek zaharberritzea ohore handia izango litzateke niretzat. Txikitatik ikusi dudana zer bait da, eta zer konponduko nukeen ere buruan zerrendatuta dut. Hainbeste denbora pasa dut hari begira... Maria Magdalena zoragarri bat daukagu Orion eta hura ere zaharberrituko nuke gustura. Gregorio Fernandez artista ezagunak egina da Orion daukagun eskultura hori. Azkenik, Orioko barran zegoen Karmengo amaren irudi hura ere zaharberrituko nuke.



R. NACENTA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Saltzeko

- Aldapa Txirrindulari Elkarteko arropa eskaera. Interesatuak deitu arratsalde telefono zenbaki honetara: 615 222 710 (Tamayo).
- Aiako aurtengo intxaurrak salgai, tamaina onekoak: 5 kilo 20 eurotan. 94313 2131 (Pat).
- Intxaurrak salgai, 4 kilo 10 euro. Tf. 943 834 498.
- Garaje itxia salgai Mendibeltz futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro koadro. Tf. 646 289 907 edo 630 370 138.
- Andatzen, erreformatu berri dagoen, 138 metro koadro etxebizitza salgai. 4 logela eta 2 bainugela. 278.000 euro (negoziagarriak). Tf. 620 335 398.

Lan eskaera

- Neska etorkina adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Etxean bertan biziko litzateke. Tf. 627 621 629 (Claudia).
- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu lasai telefono zenbaki honetara.: 679 852 341.
- Neska euskalduna etxeko eta eskaratzak garbitzeko prest. Tf.: 666 036 780.
- Neska arduratsuak etxeko garbitu eta adinekoak zainduko litzuzke. Tf.: 600 745 686.
- Neska batek haurrak edo adinekoak zaindu, eta garbiketa lanak egingo litzuzke, barneko edo kanpoko bezala. Esperientzia eta

erreferentzia ditut. Tf.: 680 788 599 eta 943 831 128.

Errentan

- Etxea alokatzeko Orion. 3 logela, altzariekin eta beharrezko tresnekin. 750 euro hilean. Tf.: 678 906 166 (Arantxa).
- Etxea alokatzeko Anibarko Portuan. 2 logela. Urte osorako. Tf. 615 757 648.
- Garajea alokatzeko Aita Lertxundi, 21ean. Tf. 609 917 399 (Igor).

Galdutakoak

- Erloju urdin bat galdu nuen, Aimar izenarekin, urriaren 8an, Aiako frontoian. Aurkituz gero, Iturriozenara eraman.

» ITSASOA

| EGUNA | ITSASGORA | ITSASBEHERA | ILARGIA |
|-------|-----------------|-----------------|---------|
| 11 | 04:22 eta 16:38 | 10:26 eta 22:39 | |
| 12 | 04:53 eta 17:10 | 11:00 eta 23:12 | |
| 13 | 05:25 eta 17:43 | 11:34 eta 23:45 | |
| 14 | 05:58 eta 18:19 | 12:11 eta ____ | |
| 15 | 06:34 eta 18:58 | 00:22 eta 12:50 | |
| 16 | 07:15 eta 19:44 | 01:02 eta 13:36 | |
| 17 | 08:05 eta 20:41 | 01:50 eta 14:30 | |
| 18 | 09:07 eta 21:51 | 02:47 eta 15:34 | |
| 19 | 10:20 eta 23:07 | 03:56 eta 16:45 | |
| 20 | 11:36 eta ____ | 05:10 eta 17:54 | |
| 21 | 00:18 eta 12:44 | 06:19 eta 18:57 | |
| 22 | 01:19 eta 13:44 | 07:21 eta 19:52 | |
| 23 | 02:13 eta 14:37 | 08:17 eta 20:43 | |
| 24 | 03:03 eta 15:27 | 09:08 eta 21:31 | |
| 25 | 03:50 eta 16:15 | 09:57 eta 22:17 | |

» ZAINTZAKO BOTIKAK

- AZAROA
- 11n, Azaldegia. 94313 31 83 Zarautz
 - 12an eta 13an, Lasa. 943 83 23 98 Zarautz
 - 14an, Mutiozabal. 943 83 29 70 Zarautz
 - 15ean, Barrenetxea. 943 83 29 70 Zarautz
 - 16an, Gallo. 943 83 29 70 Zarautz
 - 17an, Azaldegia. 943 83 29 70 Zarautz
 - 18an, Zulaika. 943 83 29 70 Zarautz
 - 19an eta 20an, Iriarte. 943 83 29 70 Zarautz
 - 21ean, Barrenetxea. 943 83 29 70 Zarautz
 - 22an, Gallo. 943 83 29 70 Zarautz
 - 23an, Mutiozabal. 943 83 29 70 Zarautz
 - 24an, Larrañaga. 943 83 29 70 Zarautz
 - 25ean, Iriarte. 943 83 29 70 Zarautz
 - 26an eta 27an, Zulaika. 943 83 29 70 Zarautz
 - 28an, Gallo. 943 83 29 70 Zarautz
- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 94313 31 83 Zarautz
- Barrenetxea:** Gipuzkoa, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- G. Artiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilarboko Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|-------|
| Donostia | 5:47 | 6:17 | 6:47 | 7:17 | 7:47 | 8:17 | 8:47 | 9:17 | 10:47 | 11:47 | 12:17 | 12:47 | 13:17 | 13:47 | 14:17 | 14:47 | 15:17 | 15:47 | 16:17 | 16:47 | 17:17 | 17:47 | 18:17 | 18:47 | 19:17 | 19:47 | 20:47 | 21:47 |
| Aia-Orio | 6:11 | 6:41 | 7:11 | 7:41 | 8:11 | 8:41 | 9:11 | 10:11 | 11:11 | 12:11 | 13:11 | 13:41 | 14:11 | 14:41 | 15:11 | 15:41 | 16:11 | 16:41 | 17:11 | 17:41 | 18:11 | 18:41 | 19:11 | 19:41 | 20:11 | 21:11 | 22:11 | |
| Zarautz | 6:19 | 6:50 | 7:20 | 7:50 | 8:20 | 8:50 | 9:20 | 10:20 | 11:20 | 12:20 | 12:50 | 13:20 | 13:50 | 14:20 | 14:50 | 15:20 | 15:50 | 16:20 | 16:50 | 17:20 | 17:50 | 18:20 | 18:50 | 19:20 | 19:50 | 20:20 | 21:20 | 22:20 |

ZARAUTZ-DONOSTIA

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz | 6:08 | 6:38 | 7:08 | 7:38 | 8:08 | 8:38 | 9:08 | 10:08 | 11:08 | 12:08 | 12:38 | 13:08 | 13:38 | 14:08 | 14:38 | 15:08 | 15:38 | 16:08 | 16:38 | 17:08 | 17:38 | 18:08 | 18:38 | 19:08 | 19:38 | 20:08 | 21:08 | 22:08 |
| Aia-Orio | 6:15 | 6:45 | 7:15 | 7:45 | 8:15 | 8:45 | 9:15 | 10:15 | 11:15 | 12:15 | 12:45 | 13:15 | 13:45 | 14:15 | 14:45 | 15:15 | 15:45 | 16:15 | 16:45 | 17:15 | 17:45 | 18:15 | 18:45 | 19:15 | 19:45 | 20:15 | 21:15 | 22:15 |
| Donostia | 6:39 | 6:50 | 7:20 | 7:50 | 8:20 | 8:50 | 9:20 | 10:20 | 11:20 | 12:20 | 12:50 | 13:20 | 13:50 | 14:20 | 14:50 | 15:20 | 15:50 | 16:20 | 16:50 | 17:20 | 17:50 | 18:20 | 18:50 | 19:20 | 19:50 | 20:20 | 21:20 | 22:20 |

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Donostia | 6:55 | 7:40 | 8:10 | 8:40 | 9:10 | 9:40 | 10:40 | 11:40 | 12:10 | 12:40 | 13:10 | 13:40 | 14:10 | 14:40 | 15:10 | 15:40 | 16:40 | 17:40 | 18:10 | 18:40 | 19:10 | 19:40 | 20:15 | 21:00 | 22:15 |
| Orio | 7:25 | 8:15 | 8:45 | 9:15 | 9:45 | 10:15 | 11:15 | 12:15 | 12:45 | 13:15 | 13:45 | 14:15 | 14:45 | 15:15 | 15:45 | 16:15 | 17:15 | 18:15 | 18:45 | 19:15 | 19:45 | 20:15 | 20:50 | 21:35 | 22:50 |
| Zarautz | 7:35 | 8:25 | 8:55 | 9:25 | 10:25 | 11:25 | 12:25 | 12:55 | 13:25 | 13:55 | 14:25 | 14:55 | 15:25 | 16:25 | 17:25 | 18:25 | 19:25 | 19:55 | 20:25 | 21:00 | 21:45 | 23:05 | | | |

ZARAUTZ-DONOSTIA

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz | 6:45 | 7:15 | 7:45 | 8:15 | 8:45 | 9:20 | 9:45 | 10:45 | 11:45 | 12:45 | 13:20 | 13:45 | 14:20 | 14:45 | 15:20 | 15:45 | 16:45 | 17:45 | 18:45 | 19:45 | 20:45 | 21:15 | | | |
| Orio | 6:55 | 7:25 | 7:55 | 8:25 | 8:55 | 9:30 | 9:55 | 10:30 | 10:55 | 11:55 | 12:55 | 13:30 | 13:55 | 14:30 | 14:55 | 15:30 | 15:55 | 16:30 | 16:55 | 17:55 | 18:55 | 19:30 | 19:55 | 20:55 | 21:25 |
| Donostia | 7:30 | 8:00 | 8:30 | 9:00 | 9:30 | 10:10 | 10:30 | 11:10 | 11:30 | 12:30 | 13:30 | 14:10 | 14:30 | 15:10 | 15:30 | 16:10 | 16:30 | 17:10 | 17:30 | 18:30 | 19:30 | 20:15 | 20:30 | 21:30 | 22:00 |

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

| | | | | | | | | | | | | | | | | |
|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Donostia | 8:00 | 9:00 | 10:00 | 11:00 | 12:00 | 13:00 | 14:00 | 15:00 | 16:00 | 17:00 | 18:00 | 19:00 | 20:00 | 21:00 | 22:00 | 23:00 |
| Orio | 8:35 | 9:35 | 10:35 | 11:35 | 12:35 | 13:35 | 14:35 | 15:35 | 16:35 | 17:35 | 18:35 | 19:35 | 20:35 | 21:35 | 22:35 | 23:05 |
| Zarautz | 8:45 | 8:45 | 9:45 | 10:45 | 12:45 | 13:45 | 14:45 | 15:45 | 16:45 | 17:45 | 18:45 | 19:45 | 20:45 | 21:45 | 23:15 | |

ZARAUTZ-DONOSTIA

| | | | | | | | | | | | | | | | | |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz | 6:45 | 7:45 | 8:45 | 9:45 | 10:45 | 11:45 | 12:45 | 13:45 | 14:45 | 15:45 | 16:45 | 17:45 | 18:45 | 19:45 | 20:45 | 21:45 |
| Orio | 6:55 | 7:55 | 8:55 | 9:55 | 10:55 | 11:55 | 12:55 | 13:55 | 14:55 | 15:55 | 16:55 | 17:55 | 18:55 | 19:55 | 20:55 | 21:55 |
| Donostia | 7:30 | 8:40 | 9:40 | 10:40 | 11:40 | 12:40 | 13:40 | 14:40 | 15:40 | 16:40 | 17:40 | 18:40 | 19:40 | 20:40 | 21:40 | 22:40 |

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Santa Zeziliako kontzertua

Musikarien zaindari da santa Zezilia eta haren eguna azaroaren 22an bada ere, aurreratu eta azaroaren 17an egingo dute emanaldia Danbolin musika eskolako ikasleek. 17:00etan kultur etxean kontzertua eta diploma banaketa egin ondoren, kalejira izango da herrian barrena hainbat txokotan gelditu eta musika piezak eskainiz: Kosta tailer ondoan, Kultur Etxe atzeko plazan, Zakilanekeo aldapan -Pietate azpian-, Herriko Plazan...

Izeta III.a eta Izeta IV.a harrija-sotzaileen aurka. Arratsaldeko 17:00etan desafioa: *Heldu!* giza proba taldea, giza proban; Izeta II.a harrija-sotzen; eta Sabberri eta Izeta, giza proban. 22:30ean, erromeria Ostolaza eta Andonegirekin, Ximorren.

■ Azaroaren 14an, diana, 07:00etan. Auzoko gazteak baserri oilasko biltzen Izer eta Alabier trikitilarietara, 07:30ean hasita. Bildutako oilaskoekin afaria, Indamendi elkartearen, 21:00etan. Ondoren, erromeria Izer eta Alabierrekin, Ximorren. Patata-dantza 23:30ean Ximorren. Jaien amaierako traka zarata-tsua, 00:00etan.

Sanromanak Aitzolan

■ Azaroaren 18an, 11:30ean meza. Ondoren, hamaiketako. Jarraian, bazkaria, *Astiazaran anaiak* trikitilarietara. Afal ondoren erromeria. ■ Azaroaren 20an, 11:30ean, meza. Ondoren, hamaiketako. Jarraian, bazkaria Agurtzane eta Elustondo trikitilarietara. Arratsaldean txokolata. Afal ondoren erromeria.

Podologia

■ Azaroaren 19an. Ordua hartzeko deitu 943131114ra.

Orio

Azoka

■ Azaroaren 19an, bigarren eskuko gauzen azoka., 10:00etatik 14:00etara, Ikastola aurreko plazan. Euria ari badu, 11:00etan frontoian.

Musika

■ Azaroaren 18an, Azkaiter Pelox eta Unai Odriozolaren kontzertua, 22:00etan Koasta tabernan.

Ipuinak

■ Azaroaren 18an, Judith ipuin kontalaria, 18:00etan, Kultur Etxean.

Erakusketa

■ Azaroaren 17tik abenduaren 2ra arte, Josune Aranbururen margo erakusketa, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik

20:00etara, Kultur Etxean.

Txistularien kalejira

■ Azaroaren 26an, 16:00etan, txistularien lokalean, festetako kalejiraren entsegu irekia, txistua jotzen dutenentzat.

Danborrada

■ Azaroaren 23an eta 29an eta abenduaren 1ean eta 3an, danborradako entseguak, 20:00etan, Kultur Etxe atzeko plazan.

Filmak

■ Azaroaren 24an eta 25ean, surf elkarteak antolatutako film emanaldiak, 19:00etan, Kultur Etxean.

Hitzaldiak

■ Azaroaren 16an eta 23an, Zaharren babeslekuak antolatutako hitzaldiak, 19:00etan, Kultur Etxean.

Aia

Sanmartinak Urdanetan

■ Azaroaren 11n, Imuntzo eta Beloki trikitilarietara erromeria, 22:00etan, Ximorren.

■ Azaroaren 12an, Gorriti eta bere animaliak, 16:00etan.

Ondoren, gozokiak eta txokolatea. Gaueko 21:00etan, txahaljana Peñagarikano eta Amets Arzallus bertsolarietara eta Izer eta Alabier trikitilarietara, frontoian. Ximor irekita, 00:00etatik aurrera

■ Azaroaren 13an, meza, 11:00etan. Binakako pala txapelketako finala, 12:00etan. Ondoren, herri kirolak: Izeta aita-semeen arteko desafioa eta bi talderen arteko lehia: Mugertza eta Imanol Izeta aizkolariak eta Izeta I.a eta Izeta II.a harrija-sotzaileak, Etxebeste eta Bihurri aizkolarietara

